



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako koadernoak

2
0
0
8
/
0
9

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAko 4. maila

MATEMATIKAKO GAITASUNA

Zuzenketa eta erregistroa: jarraibideak

Liburuxka honetan ezarritako zuzenketa irizpideak 2008ko maiatzean eginiko proba pilotuaren arabera zehaztu dira, eta zehatzak eta argiak izan nahi dute, zuzentzaile guztiek puntuazio irizpide berberak erabil ditzaten; hau da, zuzentzailea normahi izanda ere, proba bati ematen zaion puntuazioak berbera izan beharko luke.

Ondoko urratsei jarraituko zaie:

1. Zuzenketa.

Alternatiba bat hautatzea eskatzen duten galderak (A, B, C edo D).



Zuzentzaileak ez du deus berezirik egin behar.

Gainontzeko galderak



Zuzentzaileak zuzenketa egingen du eta galdera bakoitzaren ondoan idatziko du dagokion kodea (0, 1, 2...).

2. Kodeak aplikazio informatikoan sartzea. Kodeak (A, B, C, D, 0, 1, 2...) aplikazio informatikoan sartuko dira.

Erantzunik gabeko galderetan ez da koderik sartu behar (utzi zuriz).

Alternatiba bat hautatzea eskatzen den galderetan, ikasleak aukera bat baino gehiago adierazi duenean (eta bat baino gehiago ezabatu gabe utzi duenean) ez da koderik sartu behar.

Ikasleek eginiko probak ikastetxean gordeko dira eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku egonen dira. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egiaztatze azterketak egin ahal izanen ditu, zuzenketa irizpideen baliotasuna egiaztatzeko eta irizpide horiei modu homogeneoan jarraitu zaien ikusteko.

Kirol instalazioak

Herri batean oso kirol instalazio egokiak daude, besteak beste, igerileku estalia du, frontoia, polikiroldegia, gimnasioa, kirol zelaiak, eta abar.

1. Igerileku estalia laukizuzen itxurakoa da, eta luzeran 25 m eta zabaleran 10 m ditu. Fernandok ez daki oso ondo igeri egiten eta hormari eutsiz buelta osoa eman du. Zenbat metro egin ditu Fernandok?
 - A. 25 m
 - B. 35 m
 - C. 50 m
 - D. 70 m
2. Igerilekuak luzeran 25 m eta zabaleran 10 m ditu. Igerilari bat entrenatzera joan denean, bizkar eran 5 luze eta tximeleta eran 3 luze egin ditu. Zenbat metro egin ditu guztira?
 - A. 8 m
 - B. 80 m
 - C. 200 m
 - D. 270 m
3. Leirek 2 luze egiteko minutu bat eta 25 segundo behar ditu, eta bere lagunak, Sarak, 80 segundo. Nor iritsi da lehenago eta zenbat segundo atera dizkio?
 - A. Leire lehenago iritsi da eta 5 segundo atera dizkio.
 - B. Sara lehenago iritsi da eta 5 segundo atera dizkio.
 - C. Leire lehenago iritsi da eta 10 segundo atera dizkio.
 - D. Sara lehenago iritsi da eta 10 segundo atera dizkio.

4. Iaz eguraldi txarra zela-eta, kanpoko igerilekua itxita egon zen uztailaren 28tik abuztuaren 4ra, bi egun horiek barne. Zenbat egunetan egon zen igerilekua itxita?
- A. 6 egun
B. 7 egun
C. 8 egun
D. 9 egun
5. Frontoian Aimar Olaizola eta Titin III.aren arteko pilota partida bat dago. 208 eserlekuetatik 19 hutsik geratu dira. Sarrera bakoitzak 35 € balio du. Zenbat diru bildu dute?
- A. 7945 €
B. 7280 €
C. 6615 €
D. 665 €
6. Frontoiko frontisean dauden hiru marrak aztertu ondoren, esan ezazu ondorengo esaldi hauek egia (E) ala gezurra (G) diren.

	E	G
Goiko eta beheko lerroak zeharrek dira		X
Goiko eta eskuineko lerroak perpendikularrek dira.	X	
Goiko eta beheko lerroak paraleloak dira.	X	
Goiko eta beheko lerroak perpendikularrek dira.		X



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzunen bat ez da zuzena.
1	1	Erantzun guztiak zuzen adierazi dira.

Polikiroldegiko sarreran informazio-taula hau dago:

	PARTAIDEAK			
	FUTBITOA	GIMNASIA	IGERIKETA	JUDOAK
1. txanda	14	13	18	9
2. txanda	16	11	13	17

7. Ekintza guztiak kontuan harturik, zein txandatan daude ikasle gehiago?

.....


Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun oker bat.
1	1	2. txandan.

8. Zein txandatan eta zein ekintzatan daude ikasle gutxien?

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun oker bat.
1	1	Judoan, lehen txandan.

9. Egin ezazu ondorengo grafiko hau aurreko taulako datuak erabiliz; horretarako ekintza bakoitzean bi txandetan egon diren ikasleen kopuru osoa aurkitu behar da.



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	2 ekintza edo gutxiago zuzen irudikatu dira.
1	1	3 ekintza zuzen irudikatu dira.
2	2	4 ekintzak zuzen irudikatu dira. (Kasu guztietan lerro bat onartuko da banda bat izan beharrean)

Bizkotxo bat egin behar dugu

Bihar Koldoren amonaren urtebetetzea da eta bere aitak kaneladun banana-bizkotxoa egitea erabaki du. Hemen duzu bizkotxo on bat prestatzeko behar duzun errezeta eta informazioa.

KANELADUN BANANA-BIZKOTXOAREN ERREZETA

	<u>Osagaiak:</u>	
Zatiak: 6	• 3 banana	• 200 g azukre
Kaloriak: 2800	• 1 limoi	• 1/2 koilarakadatxo kanela-hauts
Egosketa: 40 minutu	• 4 arrautza	• 90 g oliba-olio
	• 210 g irin	• 1 kanela-makilatxo
	• 4 koilarakadatxo legamia-hauts	

10. Koldoren aitak 21:00etan bizkotxoa labean sartu du. Zein ordutan egongo da bizkotxoa egosita?

- A. Hamarrak eta hamarrean
- B. Hamarrak hoge gutxitan
- C. Hamarrak laurden gutxitan
- D. Hamarrak eta hogeian

11. Koldok bizkotxoaren zati bat jan du. Gutxi gorabehera, zenbat kaloria jan ditu?

- A. 0 eta 199 kalorien artean
- B. 200 eta 299 kalorien artean
- C. 300 eta 399 kalorien artean
- D. 400 eta 499 kalorien artean

12. Zure ustez, zer pisu izan dezake Koldoren aitak prestatu duen bizkotxoak?
- A. 300 gramo baino gutxiago
 - B. 301 gramo eta 400 gramoren artean
 - C. 401 gramo eta 500 gramoren artean
 - D. 500 gramo baino gehiago
13. Amonari asko gustatu zaio bizkotxoa. 12 zati dituen bizkotxoa egitea erabaki du. Zenbat gramo irin beharko ditu?
- A. 340 gramo
 - B. 400 gramo
 - C. 420 gramo
 - D. 440 gramo
14. Koldok errezetaren pauso guztiak jarraituz, bere urtebetetze egunerako kaneladun banana-bizkotxoa prestatu du. Koldok akats bat egin du eta bizkotxoa erre egin da. Zure ustez, zein akats egin du?

.....

.....

.....


Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Ez da berariaz esaten egosaldia 40 minutukoa baino luzeagoa izan dela.
1	1	Labean 40 minutu baino gehiago eduki da bizkotxoa. Onartzen da baita ere tenperatura gehiegikoa, altua edo oso altua izan dela adieraztea.

15. Koldok bizkotxo handi bat egitea erabaki du ikastetxera eramateko. Kilo bat azukre du eta beste osagai guztietatik behar adina du. Zenbat zati izango ditu bizkotxo handiak?
- A. 18 zati
 - B. 24 zati
 - C. 30 zati

D. 36 zati

16. Aitonak bizkotxoa marrazkian ikusten den moduan zatitu du.

Aitonaren eta Koldoren artean bizkotxoaren $\frac{2}{6}$ rena jan dute. Adierazi ondorengo irudian aitona eta Koldoren artean jan dutena.




Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Irudikapen okerra.
1	1	2/6-ren irudikapen zuzena. Bi sektore (edozein) markatu edo marraztu ditu.

Auto berria erosi

Aste-bukaera askotan bezala, Maria bere gurasoekin eta neba txikiarekin batera herrira joateko etxetik irten dira. Auto bat erosteko asmoa dutenez, Maria aldizkari batean gehien saldu diren autoen zerrenda irakurtzen ari da.

MARKA	KOPURUA
<i>FORD</i>	<i>11479</i>
<i>PEUGEOT</i>	<i>9862</i>
<i>RENAULT</i>	<i>9317</i>
<i>SEAT</i>	<i>8883</i>
<i>VOLKSWAGEN</i>	<i>7934</i>
<i>CITROEN</i>	<i>7830</i>
<i>OPEL</i>	<i>7086</i>

17. Mariak grafikoan gehien gustatzen zaizkion autoen markak adierazi ditu. Osatu ondorengo grafikoa goiko taulan agertzen diren datuak erabiliz.



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Irudikapen okerra.
1	1	2 auto-marken salmentaren irudikapen zuzena. Citroen markako autoei dagokien barrak zatitze-lerroen artean (7500 eta 8000) egon behar du; Opel markako autoei dagokien barrak ia-ia 7000 zatitze-lerroaren gainean egon behar du.

18. Mariaren amak auto bat erosi nahi du eta 20125 € balio duen *Ford Focus* bat gustatzen zaio. 18500 € ditu aurrezturik. Bost hilabete pasa ondoren erosi nahi badu, zenbat aurreztu behar du hilabete bakoitzean?

$20.125 - 18.500 = 1625$ euro, aurreztu behar ditu, osotara.

$1.625 : 5 = 325$ euro, aurreztu behar ditu, hileko.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Ez ditu problema ebazteko egin beharreko 2 urratsak planteatu: aurreztu beharreko kopuru osoa kalkulatzea eta kopuru hori zati hilabete kopurua egitea.
1	1	Problema ongi ebazteko egin beharreko 2 urrats hauek proposatu ditu: aurreztu beharreko kopurua kalkulatu du eta gero kopuru hori zati hilabete kopurua egin du. Hala ere, akatsen bat egin du, dela hilabete kopuruan, kalkuluan edo bestelakoren bat.
2	2	Planteamendu eta erantzun zuzenak.

19. Familiaren lagun batek auto bat erosi du. Zein izan daiteke matrikularen zenbakia? Ongi irakurri ondorengo datu hauek:

- “Batekoen” zifra eta “milakoen” zifra berdinak dira.
- “Hamarrekoen” zifra 2 da.
- Zifra guztien batura 4 da.



C J S

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun oker bat.
1	1	Badira 2 erantzun zuzenak direnak (1021CJS edo 0220CJS), eta horietako bat eman du.

20. Maria eta bere familia etxetik goizeko hamarrek hamar gutxitan atera dira eta herrira goizeko hamarrek eta hogeitan iritsi dira. Bidaia egiterakoan 5 minutu gasolindegian geldirik egon badira, zenbat denbora egin dute errepidean autoa gidatzen?

- A. 15 minutu
- B. 20 minutu
- C. 25 minutu
- D. 30 minutu

21. Aitak bidaia egiterakoan trafikoko seinaleak behatu behar ditu. Zer irudi geometriko ikus ditzake? Idatzi 3 irudiren izenak.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	2 irudiren edo gutxiagoren izenak idatzi ditu.
1	1	3 irudi geometrikoren izenak idatzi ditu (gutxienez): zirkunferentzia, zirkulua, hirukia, karratua, laukizuzena...

Gorabeherak pagarekin

Xabierri asteko paga eman diote eta besteetan egiten duen bezala pagaren erdia itsulapikoan gorde du eta beste erdiarekin herrian dagoen goxoki dendara joan da.

22. Aurreko astean ohitura berdina jarraituz, 60 zentimo gorde zituen itsulapikoan. Zenbat diru eman zioten paga moduan?

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun oker bat.
1	1	120 zentimo (edo 1 euro eta 20 zentimo).

23. Xabier gozoki dendara iritsi da eta horman dagoen erlojua begiratu du. Zer ordu da?

18 : 50

- A. Goizeko seiak hamar gutxi.
- B. Goizeko zazpiak hamar gutxi.
- C. Arratsaldeko seiak hamar gutxi.
- D. Arratsaldeko zazpiak hamar gutxi.
24. Xabier zentimoko bi txanpon desberdinekin sartu da dendan eta dena gastatu du. Zenbat diru gasta dezake?
- A. 75 zentimo
- B. 65 zentimo
- C. 55 zentimo
- D. 45 zentimo

25. Izozi bat jateko gogoarekin geratu da, kalera irten denean aitonarekin topo egiten du eta honek txanpon bat eman dio. 90 zentimo balio duen izozki bat erosi al dezake? Zergatik?

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun oker bat.
1	1	Erantzun hauetako bat: • Bai, txanpona 1 €-koa bada. • Bai, txanpona 2 €-koa bada. • Bai, txanpona 1 €-koa edo 2 €-koa bada. • Ez, txanpona 1 €-koa baino txikiagoa bada.

26. Txupatxusaren makilatxoak gutxi gorabehera neurri hau du:

- A. 30 mm
- B. 4 cm 50 mm
- C. 1 dm 5 cm
- D. 1 dm 5 cm 50 mm